

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Izurtzako Udala**

Erabilera anitzeko lokalaren erabilera pribatuagatik ordaindu beharreko prezioa arautzen duen Ordenantza fiskalaren behin betiko onarpena.

Ondoan esango diren ordenantzei hasierako onarpena eman dio Udalbatza Osoak, 2019ko urriaren 18an egindako bilkuran. Hasierako onarpena ematen duten erabaki hauek jendaurrean jarri dira 30 egun baliodunetan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-betiko onartutzat ematen da, eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean eduki osoa argitaratzen da.

I. XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean (Tarifak) zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira prezio publiko horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza hau erabilera anitzeko lokalaren erabileran aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA**3. artikulua**

Erabilera anitzeko lokalaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA**4. artikulua**

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo probetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa.

5. artikulua

Aprobetxamenduaren onuradun direnek ordaindu beharko dituzte prezio publikoak.

IV. ZORTZAPENA**6. artikulua**

Lokalaren erabileragatiko prezio publikoa erreserba egiten den momentuan ordainduko da.

**7. artikulua**

Lokalaren erabileragatiko prezio publikoak honako hauek dira:

I. TARIFAK

Kontzeptua	Euro
Astelehenetik ostiralera	
Prezioa orduko	15,00
Egun erdi, goizez edo arratsaldez, gehienez 4 ordu (8:00etatik 22:00etara)	50,00
Egun osoa, gehienez 8 ordu (8:00etatik 22:00etara)	75,00
Larunbata, igande eta jai egun.	
Prezioa orduko	20,00
Egun erdi, goizez edo arratsaldez, gehienez 4 ordu (8:00etatik 22:00etara)	75,00
Egun osoa, gehienez 8 ordu (8:00etatik 22:00etara)	100,00

Izurtzan, 2019ko abenduaren 9an.—Alkatea, Eva María Muñoz Irasuegui